

**PEDAGOGIA**

**Marta BARBERENA SANTIAGO**

**ADIMEN ANITZAK HAUR  
HEZKUNTZAN  
*INTELIGENCIAS MÚLTIPLES EN  
EDUCACIÓN INFANTIL***

**GBL/TFG 2016**



Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

**Haur Hezkuntzako Gradua /**

***Grado en Maestro de Educación Infantil***



**Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua**  
**Grado en Maestro en Educación Infantil**

Gradu Bukaerako Lana  
Trabajo Fin de Grado

**ADIMEN ANITZAK HAUR HEZKUNTZAN**  
***INTELIGENCIAS MÚLTIPLES EN EDUCACIÓN***  
***INFANTIL***

Marta BARBERENA SANTIAGO

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA  
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**  
**UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**Ikaslea / Estudiante**

Marta BARBERENA SANTIAGO

**Izenburua / Título**

Adimen anitzak Haur Hezkuntzan / Inteligencias múltiples en Educación infantil

**Gradua / Grado**

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

**Ikastegia / Centro**

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

**Zuzendaria / Director-a**

Luis IZA DORRONSORO

**Saila / Departamento**

Psikologia eta Pedagogia / Psicología y Pedagogía

**Ikasturte akademikoa / Curso académico**

2015/2016

**Seihilekoa / Semestre**

Udaberrikoa / Primavera

## Preámbulo

El Real Decreto 1393/2007, de 29 de octubre, modificado por el Real Decreto 861/2010, establece en el Capítulo III, dedicado a las enseñanzas oficiales de Grado, que “estas enseñanzas concluirán con la elaboración y defensa de un Trabajo Fin de Grado [...] El Trabajo Fin de Grado tendrá entre 6 y 30 créditos, deberá realizarse en la fase final del plan de estudios y estar orientado a la evaluación de competencias asociadas al título”.

El Grado en Maestro en Educación Infantil por la Universidad Pública de Navarra tiene una extensión de 12 ECTS, según la memoria del título verificada por la ANECA. El título está regido por la *Orden ECI/3854/2007, de 27 de diciembre, por la que se establecen los requisitos para la verificación de los títulos universitarios oficiales que habiliten para el ejercicio de la profesión de Maestro en Educación Infantil*; con la aplicación, con carácter subsidiario, del reglamento de Trabajos Fin de Grado, aprobado por el Consejo de Gobierno de la Universidad el 12 de marzo de 2013.

Todos los planes de estudios de Maestro en Educación Infantil se estructuran, según la Orden ECI/3854/2007, en tres grandes módulos: uno, *de formación básica*, donde se desarrollan los contenidos socio-psico-pedagógicos; otro, *didáctico y disciplinar*, que recoge los contenidos de las disciplinas y su didáctica; y, por último, *Practicum*, donde se describen las competencias que tendrán que adquirir los estudiantes del Grado en las prácticas escolares. En este último módulo, se enmarca el Trabajo Fin de Grado, que debe reflejar la formación adquirida a lo largo de todas las enseñanzas. Finalmente, dado que la Orden ECI/3854/2007 no concreta la distribución de los 240 ECTS necesarios para la obtención del Grado, las universidades tienen la facultad de determinar un número de créditos, estableciendo, en general, asignaturas de carácter optativo.

Así, en cumplimiento de la Orden ECI/3854/2007, es requisito necesario que en el Trabajo Fin de Grado el estudiante demuestre competencias relativas a los módulos de formación básica, didáctico-disciplinar y practicum, exigidas para todos los títulos universitarios oficiales que habiliten para el ejercicio de la profesión de Maestro en Educación Infantil.

En este trabajo, el módulo *de formación básica* correspondiente a los ámbitos de psicología y pedagogía ha permitido conocer diferentes conceptos teóricos necesarios para el desarrollo de este trabajo, cómo lo es el constructo de la inteligencia. Además, la nueva visión que aporta la teoría de las inteligencias múltiples propuesta por Howard Gardner supone un cambio en la forma de entender aprendizaje, en el cual la multiplicidad de la persona cobra especial importancia.

El módulo *didáctico y disciplinar* se desarrolla de forma teórica en el segundo apartado, por un lado con la presentación del currículo educativo para Educación Infantil, y por otro, con la exposición sobre diferentes metodologías que ayudan al desarrollo de las inteligencias múltiples.

Asimismo, el módulo *practicum* ha dado cabida a la unión entre la teoría y la práctica, desarrollando así un proyecto en Educación Infantil que trabaja todas las inteligencias durante las *prácticas escolares 3* en el colegio Ricardo Baroja de Bera.

Por otro lado, la Orden ECI/3854/2007 establece que al finalizar el Grado, los estudiantes deben haber adquirido el nivel C1 en lengua castellana. Por ello, para demostrar esta competencia lingüística, se redactan también en esta lengua el presente “preámbulo” y la sección de “conclusiones y cuestiones abiertas”, así como el preceptivo resumen que aparece en el siguiente apartado.

## Laburpena

Gradu Amaierako Lan honek adimen anitzen teorian sakontzea du helburu. Horretarako lehenik eta behin, adimen konstruktua nola ulertu den historian zehar azaltzen da, gaur egungo adimen anitzen kontzeptura heldu arte.

Adimena ulertzeko ikuskera berri honetan oinarriturik, Nafarroako Haur Hezkuntzako curriculumaz aztertu da, adimen anitzen teoriaren eta indarrean dagoen hezkuntza legearen arteko lotura eginez. Honez gain, adimen anitzak Haur Hezkuntzako ikasgelan garatzen laguntzen duten metodologiaren inguruan argi egin nahi da.

Era berean alderdi teorikoa osatzeko asmoarekin, adimen mota guztiak lantzen dituen proposamen didaktikoa diseinatu eta aurrera eraman da, ikasleen garapen integrala sustatzeko xedearekin. Azkenik, adimen anitzen teorian ardazturiko hezkuntza praktikaren inguruko hausnarketa egin da.

*Hitz gakoak:* Adimen anitzak; Haur Hezkuntza; metodologia; esku-hartze didaktikoa.

## Resumen

Este Trabajo de Fin de Grado tiene como objetivo profundizar en la teoría de las inteligencias múltiples. Para ello, primero se expone cómo se ha entendido el constructo de inteligencia a lo largo de la historia, hasta llegar al concepto actual de las inteligencias múltiples.

Al albur de ésta nueva visión de entender la inteligencia, se ha analizado el currículo de la Educación Infantil de Navarra, relacionando así la teoría de las inteligencias múltiples y la ley educativa vigente. Además, se pretende arrojar luz sobre metodologías que ayuden al desarrollo de las inteligencias múltiples en el aula de Educación Infantil.

Asimismo con la intención de completar el apartado teórico, se ha diseñado y se ha llevado a la práctica una proposición didáctica en la cual se trabajan todos los tipos de inteligencia, con la finalidad de impulsar el desarrollo integral del alumnado. Por último se reflexiona sobre la teoría de las inteligencias múltiples en la práctica educativa.

*Palabras clave:* Inteligencias múltiples; Educación Infantil; metodología; intervención didáctica.

## **Abstract**

This Final Degree Project has the goal to go deeply into the knowledge of the Multiple Intelligences. For this aim, firstly how the construct of intelligence has been understood through history is explained, until reaching the theory of the multiple intelligences nowadays.

Based on this new view of the intelligence, the Navarra's curriculum for Early Years has been analysed, and in this way the theory of the multiple intelligences and the educational applicable law have been connected. In addition, is expected to shed light on methodologies that help on the development of the multiple intelligences in Early Years.

Moreover, with the intention to complete the theoretical part, a didactic approach focused on all the intelligence types has been designed and has been put into practice, with the objective of favour the integral development of the pupils. Finally, a critical reflection is done about the theory of the multiple intelligences and the educational practice.

*Key words:* Multiple intelligences; Early Years; methodology; didactic intervention.



## Aurkibidea

<b>1. ADIMENA</b>	<b>1</b>
<b>1.1. Nola ulertu izan da adimena historian zehar?</b>	<b>1</b>
<b>1.2. Zer da adimena?</b>	<b>3</b>
1.2.1. Hurbilketa kontzeptuala	3
1.2.2. Adimenaren inguruko kontzeptualizazioak	3
<b>1.3. Adimenaren garapena: Herentzia eta ingurunea/ sortzetikoa eta eskuratutakoa</b>	<b>5</b>
1.3.1. Gardner-en hasierako adimenak	9
1.3.2. Beste Adimen batzuk	14
<b>2. ADIMEN ANITZAK ETA HAUR HEZKUNTZA</b>	<b>15</b>
<b>2.1. Adimen anitzak Haur Hezkuntzako curriculumean</b>	<b>15</b>
<b>2.2. Adimen anitzak garatzen laguntzen duten metodologiak</b>	<b>18</b>
2.2.1. Lan proiektuen bidezko ikaskuntza	18
2.2.2. Txokoak	22
2.2.3. Tailerrak	23
2.2.4. Talde elkarreragileak	24
2.2.5. Adimen emozionala	25
<b>2.3. Adimen anitzak ikasgelan</b>	<b>26</b>
<b>3. ATAL PRAKTIKOA</b>	<b>27</b>
<b>3.1. Testuingurua</b>	<b>28</b>
<b>3.2. Proiektua</b>	<b>28</b>
3.2.1. Proiektuan garatutako jarduerak	28
3.2.2. Baliabide didaktikoak	39
3.2.3. Proiektuaren balorazioa	40
<b>CONCLUSIONES Y CUESTIONES ABIERTAS</b>	<b>45</b>
<b>ERREFERENTZIAK</b>	<b>51</b>
<b>ERANSKINAK</b>	<b>53</b>



# 1. ADIMENA

## 1.1. Nola ulertu izan da adimena historian zehar?

Argi dago adimena ulertzeko modu oso desberdinak egon direla historian zehar, adimena ikuspegi ezberdinetatik aztertua izan baita. Izan ere, XIX. mendera arte filosofiatik aztertua izan da introspektio metodoaren bidez, gizaki-sorkundearen inguruko erreflexioaren barne. Italian 1957. urtean argitaratutako *entziklopedia filosofikoan* Bischof-ek adimenaren lau funtzio bereizi zituen: lehenik abstrakzio, analisi eta sintesi gaitasuna bezala; bigarrenik, ideia-orokorrak sortzeko gaitasuna bezala; hirugarrenik, errealitatearen ikuspuntutik erantzun zuzenak emateko gaitasuna bezala; eta laugarrenik ulertzeko, asmatzeko eta kritikatzeko gaitasuna bezala. Ander Egg-ek intelgentzia analisiari hasiera emateko Lalande-ren *Vocabulaire Technique et Critique de la Philosophie* lanari egiten dio erreferentzia, honela, Lalande-k adimena zerbait orokorra bezala adierazten du, “el conjunto de todas las funciones que tienen por objeto el conocimiento, en el sentido más amplio de la palabra: sensación, asociación, memoria, imaginación, entendimiento, razón, consciencia”<sup>1</sup> (Ander Egg, 2006, 72).

XIX. mendean psikologia filosofiatik berezi zen, eta, aurrerantzean adimena ez zen gehiago arlo filosofikotik aztertua izan. Psikologiaren izaera zientifikopositiboa dela eta, adimena aztertzeko metodo enpirikoak erabiltzen hasi ziren. Izan ere, Wilhelm Wundt-ek 1879. urtean Leipzig Unibertsitatean lehenengo laborategi esperimentalak fundatu zuen.

Ilde beretik, garai honetan, psikologia gertakari behakorretan zentratzen da eta honela konduktismo edo behaviorismo korrontea sortu zen. Honetan, giza-jarreraren inguruko ikasketak ziren nagusi, eta hauetan indibiduoaren gertakari behakorren eta operazionalen analisi indibidualetara mugatzen zen ikasketa metodoa. Horregatik hain zuzen ere, konduktistek adimena ukatzen zuten, prozesu-mentalen konplexutasuna dela medio ikerkuntza atomistaren bidez ezin zuten hauen existentzia demostratu, adimena elementu ezberdinez -eta ez

---

<sup>1</sup> Ezagutza xede duen funtzio multzoa hitzaren zentzu zabalean, zera da: sentsazioa, asoziazio, memoria, sormena, ulerkuntza, arrazoia eta kontzientzia.

bakar batez- osatuta baitago. Horrela, prozesu mental oro -adimena barne-ezeztatu zituzten (Miranda-Gallardo, 1998).

Konduktismoaren aurka sortutako korrontea dugu humanismoa, ikuspegi honetan pertsona osotasuna bezala ulertzen da, non, faktore fisiko, emozional, ideologiko edo espiritualen arteko elkar-ekintza dagoen, modu honetan izaki erreala kontsideratuz eta ez parteen batura. Horregatik hain zuzen korronte honetan prozesu mentalen existentzia onartzen da, hau argi ikus daiteke Gestalt-en planteamenduan: elementu singularrak edo parteak baino lehen konjuntua (osotasuna) bizitzen da, hots, elementu bakoitzak hartzen duen esanahia konjuntuaren parte izateagatik ematen da (Gonzalez, 2006).

Pertsonalismoaren korronte psikologikoaren ikuspegitik, kanpo-estimuluez gain, adimenaren garrantzia ere azpimarratzen da. Izan ere, ulertzeko era eta motibazioa pertsonaren arabera desberdina da: teorikoa, ekonomikoa, estetikoa, soziala, politikoa eta erlijiosoa (Ander-Egg, 2006).

Piaget-ekin psikologia eta biologiaren arteko muga desagertzen da, *Psicología de la inteligencia* liburuan dioen moduan: “Toda explicación psicológica termina tarde o temprano por apoyarse en la biología”<sup>2</sup> (Piaget, 1971, 13). Piaget-en ikuspegia adimena ulertzeko erari dagokionez, esan beharra dago alde batetik, adimena ingurunea ulertzeko gaitasuna bezala adierazten duela, eta bestetik, adimen zientifiko-matematikora mugatzen duela adimen kontzeptua.

Honekin guztiarekin, aipatzekoa da gaur egun adimena ez dela filosofiaren edo psikologiaren ikuspegitik aztertzen, baizik eta neurozientziatik eta psikobiologia bezalako beste arloetatik. Beraz, gaur egun adimenaren inguruko ikerketa berri batean murgilduta gaude, gizakiaren ezagutza partikularra bezala hartzen baita (Ander-Egg, 2013). Aipatzekoa da Gardner-en teoriari eginiko kritika: “Intentar cambiar la definición que la psicología tiene de la inteligencia es como intentar mover lápidas en un cementerio”<sup>3</sup> (Gardner, 2013, 14).

---

<sup>2</sup> Azalpen psikologiko oro lehenago edo geroago, azkenean, biologian oinarritzen da.

<sup>3</sup> Psikologiak duen adimenaren definizioa aldatzen saiatzea, hilerri bateko hilarriak mugitzen saiatzea bezalakoa da.

## 1.2. Zer da adimena?

### 1.2.1. Hurbilketa kontzeptuala

Ezer baino lehen, beharrezkoa da argi uztea adimena kontzeptua definitzeko modu bakarra ez dagoela, adimena ulertzeko modu oso ezberdinak baitaude. Inteligentzia hitzaren etimologiari so eginez, aipatzekoa da latinetik datorrela “*intelligere*” aditzatik: *inter* (artean) eta *legre* (hautatu, antzeman, irakurri). Interpretatu daiteke, egoera-arazo baten aurrean, hura aztertu ondoren hautaketa egokiena egitea litzakela intelgentzia.

Lehen esan bezala, adimena azaltzen duen definizio bateratua ez dago, baina aipatzekoa da aditu guztiek gaitasuna edo trebetasuna bezala ulertzen dutela. Baina gaitasun edo trebetasun hori zertan datzan desadostasuna dago, hala nola: adaptatzeko, ikasteko, ezagutzeko, arazo-egoerak ebazteko, ingurune-aldaketetatik erreakzionatzeko, jarrera zuzentzeko, ulertzeko, esanahiak ezartzeko, pentsamendua egokitzeko, egintzak ikasteko edota berriak egiteko gaitasuna edo abilezia.

Honez gain, Haggerty-k emandako definizioa oso esanguratsua da: “La inteligencia es un grupo de complejos procesos mentales definidos tradicionalmente como sensación, percepción, memoria, imaginación, discernimiento, juicio y razonamiento”<sup>4</sup> (Ander-Egg, 2006, 7).

Azkenik, Friedrich Dorsch-ek bereizitako *endelgu* eta *adimena* oso adierazgarria da: “Mientras que el término ‘*intelecto*’ se designa predominantemente a la ‘*capacidad de pensamiento*’, la palabra ‘*inteligencia*’ designa las actividades psíquicas relativas a la razón en un sentido potencial y dinámico”<sup>5</sup> (Ander-Egg, 2006, 7).

### 1.2.2. Adimenaren inguruko kontzeptualizazioak

Adimenaren izaera naturala sinplifikatzeko asmoarekin, adituek adimena sei kategorietan bereizi dute (Ander-Egg, 2006):

<sup>4</sup> Adimena prozesu mental konplexuen multzoa da, tradizioan sentsazioa, pertzepzioa, asoziazioa, memoria, irudimena, bereizkuntza, zentzutasuna eta arrazoiketa bezala definitu izan da.

<sup>5</sup> *Endelgu* terminoaren bidez *pentsatzeko gaitasuna* adierazten den bitartean, *adimen* hitzak, arrazoiarekin zerikusia duen ekintza psikikoren zentzu potentziala eta dinamikoari egiten dio erreferentzia.

- **Arazoak ebazteko gaitasuna bezala.** Ikuspuntu honen arabera, gaitasun hau ikaskuntza eta pentsamenduarekin erlazionatua dago, izan ere, ikuspegi honetatik adimena bizitzako zailtasun eta arazoei erantzuna emateko ezagutza aplikatzeko gaitasuna da.
- **Ingurunera eta egoera berrietara egokitzeko gaitasuna bezala.** Ildo honetatik, adimena ingurunera modu erabilgarrian egokitzeko ikaskuntza edo gaitasuna da, batez ere egoerak berriak direnean. Arrazoi hau dela medio gizakiak egoera oso zailtan bizirik irautea lortu du, nahiz eta fisikoki prestatuta ez egon.
- **Asmamen edo sormen gaitasuna bezala.** Asmakizun edota berrikuntza erabilgarriak eta baliotsuak egiteko gaitasuna da, eta are gehiago, arlo artistiko edo teknologikoan ez ezik, bizitzaren arlo guztietan aplikatzeko, honela kultura ondarea aberasten delarik.
- **Erlazio sozialak ezartzeko gaitasuna bezala.** Daniel Goleman-ek (1996) proposatzen duen moduan, giza adimenaren oinarria emozioak dira, eta ez koiziente intelektuala. Izan ere, emozioek bizitzeko gaitasun multzoa osatzen dute, adimen honi “adimen emozionala” izena eman zion Goleman-ek. Adimen emozionala autokontrola, gogoia, pertseberantzia, soziabilitate, egoera zailtan jokatzeko eta motibatze gaitasuna, eta batez ere, gaitasun enpatikoaren bidez adierazten da. Sentimendu, izaera eta inpultsuen arteko lotura osatzen du.
- **Gaitasun kognitiboa bezala.** Ikuspegi honen arabera, arrazoitzeko gaitasun logiko eta ezagutza orokor zabala izateak suposatzen duen abilezia intelektualaren jabetzan datza adimena. Honez gain, abstrakzio gaitasuna bezala ere ulertzen da. Aldi berean, pentsatzeko eta ikasteko abilezia bezala ikusten da zeinean informazioa eta ezagutza modu egokian erabiltzen den.

- **Gaitasun orokorra bezala (“g” faktorea).** Spearman-ek (1927) psikologian eta estatistikan oinarritutako adimenaren teoria plazaratu zuen eta adimenaren azpian ekintza intelektualak burutzeko gaitasuna dagoela defendatzen zuen. Ikuspegi honetatik adimena faktore orokor batez “g” (dominatzailea) eta espezifiko batzuek osatuta dago; faktore orokorrak gaitasun kognitiboak kontrolatzen dituen bitartean, hots, jarreran parte hartzen duen bitartean, gaitasun espezifikoek ekintza konkretuetan eragina dute. Gaur egun, Howard Gardner-en adimen anitzen teoria dela eta, adimena ezin da zerbait orokorra eta bateratu bezala ulertu. Gizaki bakoitzak adimen anitzak ditu eta adimen dominatzaileen arabera gaitasun ezberdinak izango ditu.

Azkenik aipatzekoa da (Marina, 2004) adimenaren inguruan kontuan hartu beharreko bereizketa. Alde batetik, ezberdindu behar da pertsonaren adimen-gaitasuna eta adimen-gaitasunarekiko egiten duen erabilera, eta, bestetik, adimenaren erabilera pribatua eta publikoa. Lehengoa irizpide pribatuek kontrolatzen dute eta helburu pertsonalak ditu, eta bigarrena, aldiz, irizpide publikoek kontrolatzen dute eta ebidentzia unibertsalak bilatzea du helburu.

### **1.3. Adimenaren garapena: Herentzia eta ingurunea/ sortzetikoa eta eskuratutakoa**

Gaur egun oraindik gai honen inguruan eztabaida irekia dago, hala ere, aipatzekoa da indibiduoaren berezko izaera (herentzia) eta ingurua (eskuratutakoa) modu singularrean unitate biologiko-kultural batean konbinatzen direlaren adostasuna dagoela. Hau da, pertsona bakoitzaren adimenean “emandako” zerbait dago, baina gaitasun intelektualak ez daude betirako modu zehatz batean ezarrita, izan ere, jakina da egoera-aldaketek zirkuitu zerebralak aldatzeko gaitasuna dutela. Era berean, adimenaren garapenean herentzia eta ingurunea prozesuak ez dira modu bereiztuan ematen, hauek “lehengaiak” direlarik.


Hau guztia Ortega y Gaset-ek “ni”-aren inguruan esaten zuenarekin laburbildu daiteke, “Yo soy yo y mis circunstancias”. Indibiduoak jaiotzetik duena-disponibilitate biologikoa- eskuratutakoarekin transformatzen da. Indibiduoak

eskuratzen duena kultura da: izateko, egiteko eta jarduteko era, hain zuzen ere (Ander-Egg, 2006).

Adimen anitzen teoriari dagokionez, pertsonaren berezkotasuna defendatzen da eta baita inguruak pertsonan duen eragina ere. Alde batetik, gizaki bakoitza paregabea da, haren adimenek konbinaketa eta modu konkretu batean funtzionatzen dute. Bestetik testuinguruak duen garrantzia ere azpimarratzen da “Gardner sugiere que virtualmente todos tenemos la capacidad de desarrollar las ocho inteligencias hasta un nivel razonable de rendimiento si recibimos apoyo, el enriquecimiento y la formación adecuados”<sup>6</sup> (Armstrong, 2013, 31).

lido berean, bizitzako etapek adimen-ariketetan eragin zuzena duela dio Gardner-ek, “Toda actividad basada en una inteligencia posee su propia trayectoria de desarrollo, es decir, tiene su propio momento de aparición en la primera infancia, su momento álgido a lo largo de la vida y su patrón de declive”<sup>7</sup>(Armstrong, 2013, 21).

Azkenik komenigarria litzateke adimenen garapena baldintzatzen dituzten faktoreak aipatzea, hauek guztiak, eragin zuzena baitute jaiotzen garenetik pertsonon garapenean.



**1. Figura.** Adimenen garapena baldintzatzen dituzten faktoreak

<sup>6</sup> Gardner-ek birtualki zortzi adimenak zentzuzko maila batean garatzeko gai garelara iradokitzen du, beti ere, euskarri, aberaste eta formakuntza egokiak jasotzen baditugu.

<sup>7</sup> Adimen batean oinarritutako ekintza orok garapen-jardunbide berezkoa du, hau da, agerpen une berezkoa du lehen haurtzaroan, une gorena bizitzan zehar eta beherakada patroia.



#### 1.4. Adimen anitzen teoria

Ikuspegi tradizionalaren arabera adimena Inteligentzia Test-ak erantzuneko gaitasuna bezala ulertzen da. Honen arabera, CI (Koziente Intelektuala) bezalako test-etan lortzen diren emaitzak erabiltzen dira eta hauek teknika estatistikoen bidez, gaitasunekin inferentzia egiten da emaitzak biztanle multzo ezberdinekin konparatuz eta sailkatuz. Modu honetan, adimen orokorra “g” berezko ezaugarria dela kontsideratzen da eta ezin da adinarekin edota entrenamenduarekin aldatu. Ikuspegi honen muturrean aurkitzen da adimen anitzen teoria, honek, ez du solik adimen logiko-matematikoa eta linguistikoa kontuan hartzen, CI testetan egiten den moduan, baizik eta neuropsikologian oinarrituz gizakiak dituen adimen guztiak kontuan hartzen ditu.

Adimen anitzen erreferente nagusi dugu, bere sortzailea, Howard Gardner, 1983. urtean *Frames of Mind* liburua idatzi zuen eta bertan, ikertutakoari esker adimen anitzen teoria berritzailea azaldu zuen. Nahiz eta adimen anitzen teoria 1983. urtean plazaratu zuen, hogeitun urteetan zehar teoria doitzen eta birformulatzen joan da, izan ere, hasieran proposatutako zazpi adimenei beste batzuk gehitzen joan da. Adimen anitzen teoriak kognizioaren alderdi ezberdinak onartzeaz gain, pertsonen potentzial kognitibo ezberdinak dituztela ere onartzen du. Hasieran, *Frames of Mind* liburuan, Howard Gardner-ek adimenaren definizioa honela eman zuen: “An intelligence is the ability to solve problems, or to create products, that are valued within one or more cultural settings”<sup>8</sup> (Gardner, 1983, 13).

Arazoak konpontzeko gaitasunak helburu bat bilatzen duen egoera abordatzea edota bidea determinatzea ahalbidetzen du, eta produktu kultural bat sortzea oso beharrezkoa da ezagutza lortzeko eta transmititzeko, edo sentimenduen eta iritzi propioen espresioa eta komunikazioa gertatzeko. Hogeitun urte beranduago, Gardner-ek adimenaren definizio berria eman zuen: “Un potencial biosociológico para procesar información que se puede activar en un marco


---

<sup>8</sup> Adimen bat arazoak konpontzeko edo produktuak sortzeko gaitasuna da, hauek, testuinguru batean edo gehiagoetan baloratzen direlarik.

cultural para resolver problemas o crear productos que tienen valor para una cultura”<sup>9</sup> (Gardner, 2010, 52).

Aldaketa hau oso esanguratsua da, adimena ikus edo zenbatu daitekeen zerbait izan beharrean potentziala bezala ulertzen baita, hura, kultura zehatz baten baloreen, kulturak ematen dituen aukeren eta pertsonen, familiek edota irakasleek hartutako erabakien arabera aktibatzen delarik.

Ildo beretik, adimen anitzen teoria hobeto ulertzeko ezinbestean ingelerazko “ability” eta “skill” hitzak ezberdindu behar dira, itzulpenetan sarri nahasten baitira (Ballester Martínez, 2004):



## 2. Figura. Kontzeptualizazio bereizketa

Bestalde, lehen aipatu bezala adimen anitzen teoria neuropsikologian oinarritzen da, adimena eta burmuina modu zuzenean erlazionatzen ditu. Ildo beretik, teoria honen ideia garrantzitsuenetariko bat zera da: adimen bakoitza neurologikoki autonomoa dela, eta, adimenak funtzionatzean independenteak direla, baina disziplina eremu baten aurrean adimen guztiek batera lan egiten dutela (Gardner, 2010).

Ezinbestean esan beharra dago adimen anitzen teoria bi baieztapen osagarrietan oinarritzen dela (Gardner, 2010); lehenengoa, teoria giza-kognizioaren erabateko azalpena da, espezie osoa honen barne dagoelarik. Bigarrena, nahiz eta gizaki oro adimen guztiekin jaiotzen garen, ezberdintasun

<sup>9</sup> Testuinguru kultural batean informazioa prozesatzeko, arazoak konpontzeko edo kultura batetzat balorea duen produktuak sortzeko potentzial biosozilogikoa.

indibidualak ditugu, izan ere, adimenak pertsonaren konbinazio genetikotik, bizi eta kultura baldintzetatik eta garai konkretuetatik sortzen dira. Beraz, argi dago gizaki orok adimen guztiak ditugula, baina hauek ez daude maila berean garatuta, orokorrean adimen bat edo bi besteak baino garatuagoak egoten dira. Nahiz eta pertsona bakoitza adimen konkretu batzuk garatuagoak izan, horrek ez du esan nahi bata bestea baino adimentsuagoa denik edo bestea baino adimen hobekak dituenik; hain zuzen, adimenak ez dira izatez *onak* edo *txarrak*. Adimenak guztiz amoralak dira eta edozein erabilpena izan dezakete, modu konstruktibo edo suntsitzaile batean.

“La esencia de la teoría consiste en respetar las múltiples diferencias entre las personas, las numerosas variaciones en cuanto a sus métodos de aprendizaje, los diversos modos para evaluarlos y el número casi infinito de maneras en que se pueden dejar su huella en el mundo”<sup>10</sup> (Armstrong, 2013, 12).

### 1.3.1. Gardner-en hasierako adimenak

Arestian aipatu bezala, Howard Gardner-ek adimen anitzen teoria sortu zuenean, zazpi adimen adierazi zituen (espaziala, pertsona barrukoa, pertsonen artekoa, kinestesikoa, linguistikoa, logiko-matematikoa eta musikala) eta gero berriak gehitzen joan da. Hasierako zazpi adimenak zertan datzaten eta burmuinarekiko duen erlazioa (Armstrong, 2006) azaldu ondoren hauen inguruko aspektu gehiago, hala nola, adimenaren arabera pentsatzeko modua, abileziak, gustuko ekintzak, rol sozialak eta lantzeko modua azalduko dira (ikusi 1. koadroa).

- **Adimen espaziala.** Espazio handietan zein txikietan pautak errekonozitzeko eta manipulatzeko gaitasuna da, hau da, ekintzak burutu aurretik bisualizatzeko gaitasuna da. Baina ez hori bakarrik, irudikapenak egiteko gaitasuna ere suposatzen du, hots, ideia bisual edota espazialak grafikoki errepresentatzeko gaitasuna. Adimen mota honek kolore, lerro, forma, espazioa eta elementuen arteko erlazioekiko sentsibilitatea inplikatzeko du. Horrez gain, adimen honek zerikusirik handia du

<sup>10</sup> Teoriaren muina pertsonen ezberdintasunak errespetatzean datza, ikaskuntza metodo anitzak, hauek ebaluatzeko modu ezberdinak eta munduan aztarna uzteko modu ia infinituak.

orientatzeko gaitasunarekin. Gaitasun honekin batera beste ekintza batzuk ahalbidetzen dira, bestek beste, espazioan irudi geometrikoak egitea, munduarekiko eredu mentala hiru dimentsioetan konfiguratzeko eta itxuraz desberdinak diren aspektuetan kointzidentziak aurkitzea.

- **Pertsona barruko adimena.** Adimen emozionala da eta norberaren burua ulertzeko (ahuleziak eta indar-guneak) eta horren arabera jokatzeko gaitasunean datza. Hau da, norberaren auto-ezagutzak, eredu erabilgarria eta eraginkorra (desioak, beldurrak, gaitasunak barne) izatea inplikatzeko du. Baina ez hori bakarrik, informazio hori bizitzan eraginkortasunez erabiltzea posible egiten du. Adimen honek, kontzientzia-intrintsekoarekin zerikusi handia du, geure naturaltasunarekiko dugun pertzepzio inkontzientea alegia, geure bizibokazioarekin zerikusia du (Maslow, 1954). Adimen mota honetan ematen diren konexio neuronalei dagokienez, burmuin zirkuituak bekoki-lobuluetan, lobulu-parietaletan eta sistema linbikoan ematen dira.
- **Pertsonen arteko adimena.** Pertsona barruko adimena bezala, adimen emozionala da eta besteekin erlazionatzeko gaitasunean datza. Gaitasun empatikoaren bidez adierazten da adimen hau, jendearekin komunikatzeko eta emozio propioak zein besteenak maneiatuz gatazkak konpontzeko gaitasuna ere bada. Honekin batera, besteen pentsatzeko, sentitzeko eta ekiteko erak ulertzeko, eta baita ere interakzioak, motibazioak eta besteen nahiak ulertzeko gaitasuna da. Beraz, besteekin lan egiteko gaitasuna da. Gaitasun honen ardura duten burmuin zirkuituak sistema linbikoan, bekoki-lobuluetan eta lobulu-tenporalean kokatzen dira.
- **Adimen kinestesikoa.** Mugimenduaren, espresioaren eta gorputz-hizkuntzaren adimena da. Arazoak konpontzeko, produktuak sortzeko gorputz atalak edo gorputza osotasunean erabiltzeko gaitasunean datza. Estuki erlazionatuta dago hizkuntza-ez berbalarekin. Adimen honek bi

oinarrizko konpetentziak ditu: lehenengoa, indibiduoak gorputz-mugimendu propioak kontrolatzea; eta bigarrena, objektuen tratamendu zuzena, hau da, eskulan-abileziak xehetasunez eta dimentsio txikiko objektuekin lan egitea. Adimen honek abilezia fisiko-espezifikokoak barne ditu, hala nola, oreka, indarra, malgutasuna, koordinazioa, abiadura eta gaitasun propiozeptiboak. Adimen honekin erlazioa duten burmuin-zonak zerebeloa, gongoil-basalak eta kortex-motorea dira.

- **Adimen linguistikoa.** Hizkuntza idatzirekiko eta ahozkoarekiko sentsibilitate berezia inplikutzen du. Ama-hizkuntza edota beste hizkuntzak maneiatzeko eta hauen bidez komunikatzeko edota pentsamendua adierazteko gaitasuna da. Baina ez hori bakarrik, hizkuntzak ikasteko eta helburu bati zuzenduta hizkuntza erabiltzeko gaitasuna da. Adimen honek sintaxia, hizkuntza-soinuen fonologia, hitzen esanahia, semantika eta hizkuntzaren erabilera pragmatikoak edo erabilera praktikoak maneiatzeko gaitasuna barne hartzen du. Burmuinerekiko erlazioari dagokionez, sistema-linguistikoa ezkerreko hemisferioaren bekoki-lobuluan eta tenporalean kokatzen da, Broka eta Wernicke zonaldeetan. Hala ere, eskuineko hemisferioa prosodiaz arduratzen da, hots, hitzaren osagai ez berbalaz. Beraz, adimen honetan burmuineko bi hemisferioak erabiltzen dira.
- **Adimen logiko-matematikoa.** Zenbakiak eraginkortasunez erabiltzeko eta arrazoitzeko gaitasuna da. Erlazio abstraktuak hautematea eta erabiltzea ahalbidetzen du adimen honek. Izan ere, zenbaki, kantitate eta eragiketak manipulatzeko patroi logiko edo numerikoak bereizteko gaitasunean datza. Gainera, arazoak era logikoan analizatzeko eta modu zientifikoan ikertzeko gaitasuna ere bada. Adimen mota honetan burutzen diren prozesuen barne kategorizazioa, sailkapena, dedukzioa, orokortasuna, kalkulua eta hipotesi frogaketa daude. Erlazio neuropsikologikoari dagokionez, ezkerreko lobulu-parietalean eragiketa sekuentzialak ematen dira. Hala ere, eskuineko hemisferioan zenbait eragiketa ere egiten dira. Aipatzekoa da zientzian egondako

deskubrimendu asko sormen-prozesuen bidez eman direla, honek eskuineko hemisferioaren nagusitasuna suposatzen duelarik.

- **Adimen musikala.** Eredutun musikalak (erritmoak, tonuak eta akordeak) hautemateko, interpretatzeko, sortzeko, baloratzeko, diskriminatzeko eta eraldatzeko gaitasuna da. Honekin guztiarekin, soinuen esanahiak komunikatzea, ulertzea eta sortzea ahalbidetzen da. Adimen honekin zerikusia duten prozesu mentalek eskuineko lobulu-tenporala dute oinarritzko zonaldea. Hala ere, prozesamendu modularrak direla eta bi hemisferioak erabiltzen dira.

### 1. Koadroa. Adimen anitzak

Mota	Pentsatze-ko modua	Abileziak	Gustuko ekintzak	Rol sozialak	Nola landu (materialak eta metodoak)
<b>Espaziala</b>	Irudien bidez.	Lan-bisualak sortzea eta zehaztasunez bistaratzeara.	Diseinatzea, marraztea, zirriborratzea, irudikatzea.	Eskultorea, zirujaua, itsasgizona, arkitektoa, pintorea, publizista, dekoradorea, ingeniaria, xake-jokalaria.	Taulak, grafikoak, diagramak, mapak, bisualizazioa, argazkigintza, bideoak, diapositibak eta filmak, puzzle bisualak eta labirintoak, 3 dimentsioetan eraikuntza jolasak, artelanen kritika, irudimenezko narrazioak, metafora grafikoak, sormenez esna amets egitea, pintura, collagea eta beste arte-bisualak, pentsaera bisualaren inguruko ariketak, ideien bozetoak, mapa mentalak eta beste antolatzaile bisualak, software grafikoak, patroi-bisualen bilaketa, ilusio-optikoak.
<b>Pertsona barrukoa</b>	Norberaren behar, sentimendu eta helburuen arabera.	Hausnartzea, diziplina pertsonala erakustea, neurri-jokatzea eta norberak bere onena ematea.	Helburuak ezartzea, amestea, planifikatzea, hausnartzea.	Artista, zenbait lider erlijioso, filosofoa, hizlaria. Oro har, komunitatean edo gizartean eginkizun espiritualak betetzen dituzten pertsonak dira.	Bakarkako ikasketa, sentimenduak ikasgelan, erritmo propioa sortzea, banakako jolasak eta proiektuak, ikasteko espazio pribatuak, hausnarketarako minutu bateko periodoak, interguneak, erlazio pertsonalak, auto-ikaskuntzarako formazio programak, etxerako lanerako aukerak, autoestimua ariketak, eguneroko pertsonala idaztea, helburuak ezartzeko saioak.

<b>Pertsonen artekoa</b>	Besteei ideiak transmitituz.	Besteen sentimenduak eta pertsonalitateak arakatzea eta erantzuna ematea.	Liderra izatea, antolatzea, erlazionatzea, manipulatzeko bitartekoa izan.	Saltzailea, irakaslea, medikua, lider erlijioso eta politikoa, aktorea, giza-langilea, psikologoa, terapeuta.	Kooperazio taldeak, interakzio inter-pertsonala, gatazka konponketa, ikaskideei laguntzea, mahai-jokoak, beste kurtsoetako ikasleei klase partikularrak ematea, ikaskideekin konpartitzea, taldekako brainstorming-ak, komunitate inplikazioa, lanbide baten ikasketa, simulazioak, ikasketa-klubak, software interaktiboak, ikasteko testiguetan ospakizunak, bilerak egitea.
<b>Kinestesikoa</b>	Sentsazio somatikoen bidez.	Eskuak erabiltzea, gauzak sortzeko edo konpontzeko eta gorputzaren bidez adieraztea	Dantzatzea, salto egitea, eraikitzea, ukitzea, keinuak egitea.	Artisaua, zirujaua, mekanikoa, eskultorea, kirolaria, laborategi-ikerlaria, aktorea, dantzaria,	Sormenezko mugimendua, pentsamendu manuala, mimika, antzerkia, lehiakortasun eta kooperazio jolasak, kontzientzia fisikoko ariketak, eskulanak, artisautza, gorputz-mapak, irudi zinetikoen erabilera, sukaldaritza, lorezaintza, manipulatzeko objektuak, errealtate-birtualeko software-a, kontzeptu zinetikoak, heziketa fisikoko ekintzak, gorputz-hizkuntza eta eskuak komunikatzeko erabiltzea, ukimenezko material eta esperientziak, erlaxazio ariketak, gorputz-erantzunak.
<b>Linguistikoa</b>	Hitzen bidez.	Eraginkortasunez hitz egitea eta idaztea.	Irakurtzea, istorioak kontatzea, hitz-jokoak.	Abokatuak, idazlea, hizlaria, poeta.	Konferentziak (jaso edo ikasleek egitea), talde txikietan zein handietan ideiak trukitzea, liburuak, lan-fitxak, brainstorming-ak, idazteko ekintzak, hitz-jokoak, narrazioak, eguneroko pertsonala, talde-irakurketa, banakako irakurketa, klase kideentzako irakurtzea, datu linguistikoen memorizazioa, ahots-grabaketa, testu-prozesadoreak erabiltzea, argitaratzea (adb. klaseko egunkaria).
<b>Logiko-matematikoa</b>	Arrazoiketaren bidez.	Metodo zientifikoa modu egokian erabiltzea.	Esperimentatzea, galdetzea, enigmak ebaztea, kalkuluak egitea.	Zientzialaria, matematikaria, kontablea, informatika-programatzailea.	Matematika problemak arbelean, galdera sokratikoak, frogapen zientifikoak, arazo logikoen ebazpenak, sailkapenak eta kategorizazioak, kodigoak sortzea, kalkulua eta kuantifikazioak, programazio lengoaiak, puzzleak eta logika-jolasak, pentsamendu zientifikoa, gai baten aurkezpen logiko-sekuentziala, Piaget-en zabaltze-kognitiboaren ariketak, heuristika.
<b>Musikala</b>	Erritmo eta melodien bitartez.	Musika sortzea eta analizatzea.	Abestea, txistu egitea, esku eta oinekin erritmoak sortzea, entzutea.	Musikaria, abeslaria, konpositorea, musika-zuzendaria	Kontzeptu musikalak, abestea, txistu egitea, musika entzutea, musika interpretatzea instrumentuen bidez, taldean abestu, gogaldartearen arabera musika, instrumentuak jotzea, erritmo, abestiak, rap-ak eta abesbatzak, fondo-musika, melodia zaharrak kontzeptuekin erlazionatzea, diskografiak, musika-software-a, memoria musikala.

Iturria: Armstrong, 2013.

### 1.3.2. Beste Adimen batzuk

Lehen aipatu bezala, Howard Gardner-ek zazpi adimen deskribatu zituen. Gaur egun, beste adimen batzuk planteatu izan dira, horien artean, naturalista, espirituala, existentziala eta morala. Gardner-ek lista handitzea ez du zuhurra ikusten adimenak ondo aztertu arte. Aipatzekoa da hasierako zazpi adimenez osatutako listan berri bat gehitzeari Gardner-ek dioena: “Mis estudiantes me han preguntado muchas veces si hay una inteligencia culinaria, una inteligencia humorística o una inteligencia sexual. Y han llegado a la conclusión de que sólo puedo reconocer las inteligencias que yo mismo poseo”<sup>11</sup> (Gardner, 2010, 69).

Howard Gardner-ek adimen espirituala kontu kosmikoetan pentsatzeko gaitasuna bezala ulertzen du, eta ez adimena bezala. Azken finean *espiritual* hitzak fenomeno oso konplexua adierazten du, izan ere, gai kosmiko honen oinarrian atsekabea, esperientzia pertsonal edo estetiko hunkigarriak edo espiritualtasuna nabarmentzen duen gizarte batean bizitzea egon baitaitezke.

Horregatik, Gardner-en ustez hobe da *espiritual* terminoa alde batera uztea eta adimen existentzialaz hitz egitea. Honen aurrean, Gardner-ek adimena kontsideratzeko bete beharreko zortzi irizpideak adimen existentzialari aplikatu dizkio, eta nahiko ondo betetzen dituen arren, fenomenoaren konplexutasuna dela medio eta listako besteko adimenekin erlazio oso txikia duenez momentuz, ez du adimena bezala kontsideratzen.

Adimen bat zertan datzan azaltzean rol soziologiko batekin lotzen da, zein gaitasun intelektual konkretu baten menpe dagoen. Adimen naturalistaren kasuan, espezieak (flora eta fauna) bereizteko eta sailkatzeko gaitasunarekin lotzen da. Mendebaldeko kulturaren, *naturalista* hitza, munduaren eta izadiaren ezagutza zabala dutenei aplikatzen zaie, adibidez, Darwin eta Wilson bezalako pertsonari. Izan ere, Darwin-ek *jaoitzetiko naturalista* zela esaten zuen eta Wilson-ek *Naturalist* (naturalista) izenburuarekin publikatu zuen bere autobiografia. Gardner-ek Darwin eta Wilson bezalako beste hainbat pertsonaiak (ekologistak, ornitologoak, izaki bizidunen ezagutza teorikoak garatu dituztenak eta abar) hasierako zazpi adimenetan ahokatzeko zailtasunak

---

<sup>11</sup> Nire ikasleek sarritan sukaldaritza adimena, adimen umoristikoa edo adimen sexuala dagoen galdetu didate. Eta nik neuk ditudan adimenak soilik aitortu ditzakedala ondorioztatu dute.



ikusi zituen, eta horregatik hain zuzen, beste adimen bat izatearen ideia planteatu zuen.

*Frames of Mind* liburuan, zazpi adimenei aplikatutako kriterioak erabiliz, adimen naturalistaren existentzia onartu zuen. Adimen naturalistaren garrantzia nabaria da eboluzioaren historiari so egiten badiogu, organismo baten bizirik irauteak espezieak bereizteko gaitasunaren menpe baitago, modu honetan, espezie batzuk saihestuz (harrapariak) eta beste batzuk bilatuz (harrapakin bezala edo jolasteko). Honez gain, naturalista baten eremua ez da soilik taxonomiaren aplikaziora mugatzen, edo flora eta faunara mugatzen, beste esparru askotan ere aplikatzen da, hala nola, nekazaritzan, abeltzaintzan, sukaldaritzan.


Ezin utz daiteke aipatu gabe azkeneko irizpidea adimen naturalista beste adimen bat bezala kontsideratzeko, sinbolo-sistemak kodifikatzeko gaitasuna, hain zuzen ere. Ildo honetatik, kultura ezberdinetan animaliak eta landareak sailkatzeko dauden sistema linguistiko zabalek gaitasun unibertsala dela demostratzen dute, zeinbait artelanek ere, mundu naturalaren fenomenoek ezaugarriak antzematen dituzte. Horrez gain, bizitza erlijiosoak eta espiritualak erritu sakratuak barne, mundu naturalean oinarritzen dira eta gainera, antzematen eta komentatzen saiatzen dira, kulturaren arabera modu ezberdinetan baloratuz.

## **2. ADIMEN ANITZAK ETA HAUR HEZKUNTZA**

### **2.1. Adimen anitzak Haur Hezkuntzako curriculumean**

Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako ezarritako curriculumaz aztertzea eta adimen anitzen teoriarekin uztartzea komeni da hezkuntza praktika bideratu ahal izateko.

Hasteko, ezinbestean azpimarratu behar da 23/2007 FORU DEKRETUA, martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzetarako curriculumaz ezartzen duen horretan 3.artikuluan bi helburu ezartzen dituela, eta hauek, zeharo lotuta daudela adimen anitzen ikuspuntuarekin:



### 3. Figura. Haur Hezkuntzako helburuak

Arestian aipatu bezala, adimen anitzen teoriak haurren izaera guztiz errespetatzen du, adimen guztiak maila berekoak kontsideratzeaz gain, haurretan adimen guztien garapena bultzatzen da; eta gainera, diziplinartekotasun testuinguru baten barruan, beraz, adimen anitzen teoria globaltasun printzipioarekin bat datorrela argi ikus daiteke. Modu batez esan daiteke kontzeptu bi hauek oinarrian helburu bera dutela, haurrak modu egokian osotasunean garatzea, hots, pertsonon parte diren alderdi guztiak garatzea, hala nola, arlo emozionala, kognitiboa, fisikoa eta soziala. Ildo beretik, dekretuko 6. artikulura joz Haur Hezkuntzako edukiak eta curriculumaren arteko erlazioa ezartzen da, bertan, “haurrentzat interesa eta esanahia izanen duten jardura globalizatuen bidez landuko dira hezkuntzako edukiak” esaten da.

Dekretuarekin jarraituz, 10.artikuluak dio aniztasuna kontuan hartu behar dela, eta are gehiago, ikasle guztien garapenez eta premiez arduratzeko gai izan behar dela irakaslea. Honez gain dekretuaren sarreran haur bakoitzaren erritmoa zein heldutasun estilo berezira irakas-ikaskuntza prozesua egokitu behar dela aipatzen da. Kontuan hartzekoa da haurren interesak sarritan ikasteko esanguratsuak dituzten moduekin erlazionatzen direla, esate baterako haurraren arabera zerbait azaltzeko adierazpen espaziala, linguistikoa edo egoera arazo baten bidez egitea. Honela, modu ezberdinetan ikasteko aukera ematen duen metodologia aproposena litzateke, adimen anitzen kasua, haur guztien interesa errespetatzeaz gainera beren ikaskuntza esanguratsua izan dadin laguntzen duena, eta baita, beste adimenak garatzen ere.

Curriculum dekretuaren azterketarekin jarraitzeko Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako ezartzen diren arloei so egin behar zaie ezinbestean, izan ere, hauetan oinarrituz eraikitzen baita hezkuntza praktika:



#### 4. Figura. Adimen anitzak eta curriculum

Aurreko laburpenean argi ikus daiteke zein adimen motei ematen zaien garrantzia gehien Haur Hezkuntzako curriculum dekretuan. Adimen emozionalei garrantzia berezia ematen zaie etapa honetan, pertsonaren identitatea-erakuntza hasteaz ez ezik, sozializazioa ere ematen delako. Honetaz gain, adimen linguistikoak ere pisu handia hartzen du, hizkuntza komunikatzeko

tresnatzat hartzen baita. Bestalde aipatzekoa da, adimen espazialaren eta musikalaren agerpen urria, adimen bi hauen inguruko edukiak eskasak dira, nahiz eta haurren garapenerako ezinbestekoak izan.

## **2.2. Adimen anitzak garatzen laguntzen duten metodologiak**

Jakina da adimen anitzak garatzeko bide bakarra ez dagoela, hala ere, edozein metodologia praktikan jartzen dela ere, horretan, haurra osotasunean errespetatzen eta baloratzen duen hezkuntza ikuspegia ardatza izatea ezinbestekoa da. Beste modu batez esanda, ikasgelan aurrera eramaten den ikasbide zeinahi dela ere, haurraren kontzepzio argia izan behar du, non, haurraren izaera, erritmoa, interesak eta hitza errespetatu behar dituen.

Haur Hezkuntzako ikasgeletan metodologia ezberdinak erabili eta konbinatu ohi dira, besteak beste, lan proiektuen bidezko ikaskuntza, txokoak, tailerrak, talde elkarreragileak eta adimen emozionala. Atal honetan, lan proiektuen bidezko ikaskuntzan eta txokoen metodologian sakonduko da gehienbat, hauetan oinarrituko baita lan honen atal praktikoa.

Metodologia hauek guztiak, eskola berria mugimenduaren ondorioz sortu ziren, eta metodologia aktiboak deritze. Eskola berriaren ikuspegi paidozentristak haurra bere kabuz eta modu aktiboan ikas dezakeen indibiduotzat hartzen du, eta gainera, ikaskuntza esanguratsua haurren interesetatik eraiki behar dela defendatzen du.

### *2.2.1. Lan proiektuen bidezko ikaskuntza*


William Heard Kilpatrick-ek, John Dewey-en jarraitzailea, 1918. urtean proiektuen bidez lan egitea proposatu zuen lehenengo aldiz, jarduera didaktiko moduan (Paymal, 2008).

Gaur egun, lan egiteko modu hau definitzea zaila suertatzen da autoreen artean desadostasun handiak ematen baitira. Alde batetik, metodologia, pedagogia edo formula didaktikoa bezala aurkezten da, eta bestetik, zenbait autorek metodologia bat baino haratago doan hezkuntza ikuskera dela defendatzen dute, ez baitute proposamen itxi bat bezala ulertzen.

Edozein ikuskera hartuta ere, hezkuntza praktikarako tresna dela esan daiteke, hala ere, komenigarria litzateke proiektu bat zertan datza azaltzea, hortaz, lan

proiektuak honela definitu daitezke: “un proyecto es una o varias actividades planteadas alrededor de un tema, cuyo objetivo último es la construcción social de significado”<sup>12</sup> (Zenbait egile, 2010, 33).

Arestian aipatu bezala, desadostasunak dauden arren lan proiektuen oinarriak zeintzuk diren laburbildu daitezke hurrengo hauetan (Zenbait egile, 2010 eta Muñoz eta Diaz, 2009):



**5. Figura.** Lan proiektuen oinarrizko ezaugarriak

Bestalde, ezinbestean azaldu behar da lan proiektuek hezkuntza ikuspegizat hartzen direnean zein-nolako ildo pedagogikoa jarraitzen duten (Hernández, 2008):

<sup>12</sup> Proiektu bat gai baten inguruan planteatzen den jarduera bakarra edo multzoa da, esanahi sozialaren eraikuntza helburu duelarik.




**6. Figura.** Lan proiektuen ildo pedagogikoa

- Adimen Anitzak eta Gaitasun Gakoak garatzeko proiektuak

Adimen anitzen teoria eta honek suposatzen duen hezkuntza ikuspegi berria dela eta, aditu eta irakasle aunitz tresna didaktiko berriak bilatzen hasi dira egoera honi erantzun egokia emateko asmoz. Autore eta irakasle horien artean Amparo Escamilla dugu, adimen anitzak zein gaitasun gakoak lan proiektuen bidez garatzeko proposamena egiten duena.

AA/GG proiektuak zer diren egokiro ulertzeko beharrezkoa da Escamilla-k ematen duen azalpenari erreferentzia egitea, “una estrategia de trabajo que integra contenidos de las áreas y materiales con técnicas para aprender a pensar que movilizan todas las inteligencias orientadas al desarrollo de competencias clave y alrededor de núcleos, particularmente significativos para los alumnos, por medio de situaciones que les permitan cooperar, investigar, tomar decisiones, crear productos y valorarlos”<sup>13</sup> (Escamilla González, 2015, 17). Azkenik eta AA/GG proiektuak zertan datzaten argitzeko, proiektuen oinarritzko ezaugarriak aipatzea komeni da:



### 7. Figura. AA/GG proiektuen ezaugarri nagusiak


<sup>13</sup> Lan egiteko estrategia da, zeinak alorretako edukiak eta materiak integratzen dituen, eta, gaitasun gakoak garatzeko adimen anitzak mugiarazi egiten dituen ikasleentzako esanguratsuak diren nukleoaren inguruan, kooperatzea, ikertzea, erabakiak hartzea, produktuak sortzea eta hauek baloratzea ahalbidetzen dituzten egoeren bidez.

### 2.2.2. Txokoak

Lan txokoen metodologiaren sorrerari so eginez, aipatu beharra dago XX. mendeko eskolak norbanakoaren gaitasunen garapenean indarra jarri zuela, eta horrekin batera, autonomiaren garapenak garrantzia hartu zuen egunerokotasunezko ikasbide bezala (Vicenç Arnaiz, 2008).

Metodologiarekin jarraituz, txokoetan lan egiteak Laguía-k eta Vidal-ek dioten bezala zera esanahi du, “trabajar por rincones quiere decir organizar la clase en pequeños grupos que efectúan simultáneamente actividades diferentes”<sup>14</sup> (Laguía, Vidal, 2008, 18).

Txokoen metodologia orain dela urte asko erabiltzen hasi bazen ere, gaur egun oraindik eskola askotan praktika orokortua da. Urteak pasa ahala hezkuntza paradigma eta ikuskera ezberdinak agertu dira, adimen anitzen kasu, eta hauetara guztietara moldatu daiteke. Aldi berean, lan txokoen funtsa bere horretan jarraitzen du, ardatzak hurrengoak direlarik (Laguía eta Vidal, 2008):



<sup>14</sup> Txokoetan lan egiteak ikasgela talde txikietan antolatzea eta hauek aldi berean jarduera ezberdinak egitea esanahi du.



- Txoko motak



### 9. Figura. Txoko motak (Laguía eta Vidal, 2008)


Honekin guztiarekin eta lan txokoen metodologia laburbiltzeko asmoz, txokoen metodologiak haurra zentzumenen eta manipulazioaren bitartez bere ikaskuntzaren eraikitzailea kontsideratzen du. Modu honetan, haurren izaera errespetatzen (interesak, motibazioak, erritmoak, ikasteko moduak...) eta autonomia bultzatzen da (erabakitzeko, beren kaxa ibiltzeko, beren moduan ekiteko aukera...), beti ere, jolasa ikaskuntzarako bidea izanik.

#### 2.2.3. Tailerrak

Haur Hezkuntzako ikasgeletan sarritan aurkitzen dugun metodologia dugu tailerra, ikasgelako espazio alternatiboa eta osagarria izaten da eta honelako izaera du: “el taller puede entenderse como un *espacio específicamente equipado y un área especializada*. Se trata de un contexto (una habitación o

incluso un rincón) exclusivo en el que se desarrollan actividades *ad hoc*”<sup>15</sup> (Borghi, 2005, 23).

Hala ere, zenbaitetan arestian azaldutako txokekin bereiztea zaila izaten da, gehienbat txoko fisiko batekin erlazionatzen direlako, hau ekiditeko asmoz hurrengo irudian metodologia bi hauen arteko bereizketa ikus daiteke:



**10. Figura.** Txokoen eta tailerren arteko ezberdintasunak (Laguía eta Vidal, 2008 eta Borghi, 2005)

#### 2.2.4. Talde elkarreragileak

Talde elkarreragileen metodologia ikas-komunitateen hezkuntza planteamenduarekin lotzen da zuzenean, honen ikuskerarekin guztiz bat egiten duelako. Izan ere, ikas-komunitatearen filosofiari dagokionez, haurren hezkuntza premiei erantzun integratua eta komunitarioa ematea lehentasuna da, eskola esparrutik haratago doan lankidetzan oinarriturik. Hau horrela dela, ikas-komunitatea ez da soilik eskola barruko partaideetara (ikasle, irakasle, langileak) mugatzen; familiek, boluntarioek eta auzokideek ere parte hartzen dute, ikaskuntza elkarrekin eraikiz.

Ilido berean, metodologiaren nondik norakoak zehazteko asmoz Barrio de la fuente-k ematen duen azalpena dugu: “*talde elkarreragileak* gelaren antolaketa malguak dira, jakintza eta esperientzia anitzen bilgune izanik elkarren arteko

<sup>15</sup> Tailerra, berariazko espazio eta eremu espezializatua bezala uler daiteke. Testuinguru eksklusiboaz ari gara (gela edota txoko bat ere), non, helburu zehatz bati erantzuteko jarduerak egiten diren.

ikasketa indartzen dutenak” (Pastor eta Bereziartua, 2015, 79). Azkenik, hobeki ulertzeko xedez talde elkarreragileen ezaugarri garrantzitsuenak aipatuko ditugu:



**11. Figura.** Talde elkarreragileen ezaugarri orokorrak

### 2.2.5. Adimen emozionala

Gaur egun gizartean dagoen *analfabetismo emozionala* dela medio, eta ez hori bakarrik, arazo horrek dakarren ondorio kaltegarria guztiak (anorexia, bullying-a, ikasteko zailtasunak, eskola porrota...) ikusta, gai garrantzitsu hau lantzeko beharra gero eta nabariagoa bihurtu da eskolaren aldetik (Etxeberria, 2008).

Adimen emozionalean ardazturik, Daniel Golmenan-ek honela azaltzen du: “La inteligencia emocional es la capacidad de establecer contacto con los propios sentimientos, discernir entre ellos y aprovechar este conocimiento para orientar nuestra conducta, y la capacidad de discernir y responder adecuadamente a los estados de ánimo, temperamento, motivaciones y deseos de los demás”<sup>16</sup> (Del Pozo, 2014, 234).

<sup>16</sup> Adimen emozionala norbanakoaren sentimenduekin harremanetan jartzea da, horien artean bereiztea eta ezagutza hori balioetsi gure jarrera bideratzeko, eta baita besteen gogo-aldartea, aiurria, motibazioak eta desioak bereizteko eta egokiro erantzuteko ere.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak bideratutako hezkuntza emozionalaren programan, garapen emozionala -garapen kognitiboaren osagai gisa kontuan harturik- haurren izaera integralaren garapenerako ezinbestekoa dela defendatzen da. Hezkuntza emozionalaren helburua ikasleak gaitasun emozionala garatzea da, etorkizuneko bizitzarako beharrezkoa izango baita bai arlo pertsonalean ongizatea lortzeko zein profesionalean arrakasta izateko (Etxeberria, 2008).

### **2.3. Adimen anitzak ikasgelan**

Argi dago eskolaren helburua haurrek heztea dela, pertsonaren alderdi guztiak kontuan hartuz, hau da, garapen integrala lortzea. Baina irakas-ikaskuntza praktika ezin da mugatu soilik ikasleek adimenak garatzera, ikasleek dituzten afizioak edo bokazioak lortzen ere lagundu beharko luke eskolak (Gardner, 2013). Baina nola gara daitezke adimen anitzak eskolan? Gaur egungo irakaskuntza praktikan posible al da?

Agian, orain arte adimena beste modu batean ulertu izan denez behar bada oraindik, trantsizio garaia pasa beharra dago beste modu batean irakasteko eta ondorioz ikasteko. Baina zer nolako jarrera edo irizpide jarraitu behar ditu adimen anitzak estimulatu nahi dituen irakasleak? Tradizioan indarrean egon den irakaslearen papera aldatu beharra dago, irakasteko modu ezberdinak tartekatuz, horrela ikasleei ikaskuntza egoera eta tresna ezberdinak eskainiz.

Bestalde, azpimarratzekoa da adimen anitzen gaian adituak diren idazleek aspektu batean bat etortzea, esate baterako, ikasgelan adimen anitzak garatu ahal izateko irakasleak bere burua ongi ezagutzearen beharra. Honela, irakasleak zein adimen mota duen garatuago eta zein garatzearen duen jakin behar du, zeintzuk diren bere indar guneak eta ahuleziak, eta horiek kontuan hartuz praktika bideratzea. Hortaz, adimen anitzen lanketa irakaslearen lan pertsonaletik hasten dela argi ikus daiteke, gainera, azpimarratzekoa da ere adimen emozionalaren garrantzia irakasle lana egokiro garatu ahal izateko. Alde batetik, arestian esan bezala pertsona barruko adimena ezinbestekoa da irakasleak bere burua ezagutu ahal izateko eta ondorioz etekin handiena ateratzeko bere lanari, eta bestetik, pertsonen arteko adimena ere haurrekin

elkar-lanean aritzeko, beren adimenak ezagutzen, garatzen eta balioesten laguntzeko.

Saioen garapenari so eginez, adimen anitzeko metodologia erabiltzen duen irakasleak ez luke edukia lantzeko bide bakarra erabiliko, saioan zehar aldatuko luke beharren arabera, adibidez, hitzen bidez azalpena eman beharrean marrazkien bidez egitea. Horrez gain, ikasleak elkar-eragiteko modu ezberdinak (binaka, talde txikietan eta handietan) planteatu beharko lituzke, eta gainera, denbora planifikatzeko aukera ere eman beharko lieke ikasleei, modu honetan ikasleen erritmoak errespetatuz (Armstrong, 2013).

Ildo berean, azpimarratu behar da haurren adimen indibidualtasunaren inguruko aspektua, izan ere, nahiz eta haur bakoitza adimen bat edo pare bat garatuago izan besteekin alderatuz, ezin da horietara soilik mugatu. Beraz, irakasleak ezin du haurra etiketatu adimen batekiko duen lehentasuna edo prestutasunagatik (Ballester Martín, 2014). Hurrei aukerak eskaini behar zaizkie momentu oro, egoera eta testuinguruaren arabera beharrak oso ezberdinak izan daitezkeelako.

Azkenik ezin utz daiteke aipatu gabe eskolak adimen mota guztiei garrantzia bera eman beharko liekela, teoriaren oinarrietako bat adimenen arteko garrantzia maila berdintasuna baita. Hortaz, ezin da hezkuntza historian zehar gertatu den bezala, adimen linguistiko eta logiko-matematikoetara soilik hezkuntza praktika bideratu, eskolan adimen guztiek garrantzia berdina izan behar dutelarik.

### **3. ATAL PRAKTIKOA**

Aurreko ataletan alderdi teorikoen inguruko azalpena eman da, hala nola, adimen anitzen teoria, hauek garatzeko metodologia ezberdinak, eta, Haur Hezkuntzako curriculum. Atal honetan aldiz, proposamen praktikoa egin da adimen anitzak aplikatzeko asmoz, hortaz, esku-hartzearen xedea adimen mota guztiak lantzea izan da. Era beran, eskola batean burututako proiektua osatzen saiatu naiz, ekarpen gisa, proiektua garatzen zen heinean hura analizatu, eta, egoerari moldatuz esku-hartzea diseinatu eta praktikan jarri nuen.

### 3.1. Testuingurua

Berako Ricardo Baroja eskola publikoan garatu zen proposamen praktikoa, 4 urteko gelan hain zuzen ere. Ikasgela 14 hurrez osaturik zegoen, horietatik, behar bereziak dituen haur bat zegoelarik, hizkuntza atzerapena zuena. Metodologian ardazturik, aipatu beharra dago Ricardo Barojako Haur Hezkuntzako 2. zikloan proiektuen eta lan txokoen bidez lan egiten dutela, eta, zenbaitetan ere tailerrak egiten direla.

### 3.2. Proiektua




Lanaren atal praktikoa hau arestian aipatutako gelako egoerari egokituta diseinatu zen, hortaz, eskolan landutako “erleen” proiektuan parte hartu zen hasierako momentutik. Proposamen didaktiko honek adimen mota guztiak modu parekatuan lantzea helburu zuela medio, proiektua eraikitzen zihoan heinean burututako jarduerak analizatu ziren, bakoitzarekin zein adimen lantzen ziren zehaztuz, eta , proposamenak diseinatu eta praktikan jarri ziren.





Proiektuaren muinarekin hasi baino lehen komeni da zenbait aspektuei so egitea, lehenik, aipatu behar da proiektuan garatutako ataza guztiak haurren interesetatik abiatu egin zirela, eta, haurren erritmo zein beharrak kontuan hartu zirela prozesu guztian zehar. Proiektuaren abiapuntuari dagokionez, otsailaren 23an gure bidaiari hasiera eman genion, goizean gelan sartzean zenbait erle topatu genituen lurrean, baina nondik sartu ziren? Erleak ala liztorrak ziren? Hilak ala bizirik zeuden? Hainbat galdera sortarazi zitzaizkigun, eta, gaiaren inguruan hasi ginen hizketan, erleen inguruan gehiago jakin nahi genuela erabaki genuen elkarrizketa horren ondorioz.

#### 3.2.1. Proiektuan garatutako jarduerak





Hurrengo taulan proiektuan eginiko jarduerak ez ezik, txokoetan gehitu diren hainbat material ere, eta, hauekin guztiekin landutako adimen motak agertzen dira. Arestian aipatu bezala, proiektua garatzen ari zein heinean, adimen motak analizatu eta lantzeaz geratzen ziren adimenei zuzendurik jarduerak ezberdinak proposatu ziren, hauek kolore berdez aurki daitezke ere hurrengo taulan:





## 2. Taula. Garatutako jardueren deskribapena





JARDUERAK	ADIMEN MOTA	IRUDIA
<p><b>Zer dakigu eta zer jakin nahi dugun:</b> Asanbladan ginelarik erleen inguruan hasi ginen hitz egiten, genekizkien gauzak partekatu genituen, eta aldi berean, zenbait zalantza sortu ziren. Modu honetan, datu hauek guztiak jaso genituen, nahiz eta guztiz irekia izan, proiektuaren ildoak nolabait zehazteko.</p>	Linguistikoa eta naturalista	
<p><b>Proiektuari izena jarri:</b> Asanbladan erabaki genuen zein izena jarri nahi genion gure proiektu berriari, proposamen ezberdinen artean, <i>erleak</i> izenburua erabaki genuen, bozketa baten bidez.</p>	Linguistikoa, eta pertsonen artekoa	
<p><b>Txoko txuria, erleen txokoa bihurtu:</b> Proiektu berriarekin hasi ginenez, aurretik zegoen <i>sorginen txokoa</i> jaso genuen proiektu berriari lekua uzteko asmoz. Txoko honetan, erleen inguruko material guztiak bildu genituen proiektua garatzen zen heinean, nahiz eta beste txokoetan ere, erleekin zerikusia duten materialak ere egon. <i>*Txoko eta material guzti hauek taula amaieran ikus daitezke.</i></p>		
<p><b>Erle txokoa apaintzeko letra handiak azertu eta koloreztatu:</b> Lehenik <i>erleak</i> hitza osatzen duten hizkiek inprimaturik genituen (orri bakoitzeko hizki bat) eta asanbladan jolastu ginen. Hizkiak lurrean sakabanaturik zeudela, letrak izendatu genituen eta ordenatzen saiatu ginen hitz bat osatzeko asmoz. Azkenik, <i>erleak</i> hitza aurkitu genuen. Bigarrenik, hauek bikoteka margotu eta moztu genituen, eta azkenik, erle txokoaan itsatsi genituen.</p>	Linguistikoa, espaziala eta kinestesikoa	





<p><b>Gurasoei erleen inguruko informazioa eskatu:</b> Asanbladan ginela, ohar bat ordenagailuz idatzi genuela jakinarazi genien ikasleei, bertan, gurasoei proiektuaren berri eman eta informazioa eskatzen geniela adieraziz. Hala ere, ikasleei laguntza eskatu genien proiektuaren gaia oharrean jartzeke baitzegen. Hortaz, ikasleek <i>erlea</i> hitza euskarazko atalean, eta, <i>abeja</i> gaztelerakoan idatzi zituzten.</p>	Linguistikoa	
<p><b>Erleen eta loreen irudiak koloreztatu eta leihoan jarri erleak gerturatzeko:</b> Erleak gure klasera hurbiltzeko asmoarekin, loreen eta erleen marrazkiak margotu, moztu eta zenbaitetan zelofan zatiak itsatsi genizkien, eta azkenik, gelako leihoetan ipini genituen.</p>	Espaziala eta kinestesikoa	
<p><b>Erleek sorturiko produktuen analisisa:</b> Asanbladan geundelarik, erleek landutako abaraskak, polena eta ezta bezalako produktuak ikusi, ukitu, usaindu eta dastatu genituen. Modu berean, hainbat gauza komentatu genituen: zer gustatu zitzaion bakoitzari gehien, zer nolako sentsazioak eragiten zitzaizkien... Honela, elkarri entzun, iritziak adierazi eta zenbaitetan partekatu genituen.</p>	Pertsonen artekoa, pertsona barrukoa eta kinestesikoa	
<p><b>Guraso batek eskainitako hitzaldia:</b> Haur baten erlezaina den aita, gelara etorri zitzaigun eta bere hobby-aren inguruan azalpenak eman zizkigun. Izan ere, erlezainaren lanaz hitz egin zigun, zereginak, aparailuen funtzioa eta funtzionamendua, eta baita, Asiatik etorritako liztorrek bertako erleentzako suposatzen duten arazoaz ere solastu zen. Amaitzeko, bere erlauntzatik hartutako polena eta ezta dastatu genituen.</p>	Naturalista eta linguistikoa	











<p><b>Erleen atalak desberdintzeko jolasa:</b> DIN A3 tamainako paperean erle baten irudia margotu genuen talde handian. Honela, erleak dituen atalen inguruan hitz egiten hasi ginen, kopurua, forma eta atalen funtzioaren inguruan, hain zuzen ere.</p>	<p>Naturalista eta linguistikoa</p>	
<p><b>Argizaria eta buztina erabiliz kandelak sortzea:</b> Lehenik erlezainek erlauntzetan abaraskak egiteko erabiltzen dituzten argizari zatiak berotu genituen, hauek bigundu ahal izateko. Jarraian, argizari zatiekin argi-mukiak inguratu genituen tutu modukoa sortuz. Behin kandela egin genuela, buztin txuriarekin oinarri bat modelatu genion, eta lehortzen utzi ondoren, errotulagailuz margotu genuen.</p>	<p>Kinestesikoa eta espaziala</p>	
<p><b>Erleen nahiz polinizazioaren inguruko marrazki bizidunak ikusi:</b> Maya erlearen marrazki bizidunak ikusi genituen ordenagailuan. Ikusitako kapituluan, Maya-k eta bere lagun minak lehiaketa batean parte hartzen zuten, non, polen bola handiena eta borobilena egiten saiatu behar ziren. Horretarako, erlauntzetik atera eta loreetatik polena hartu behar zuten, egoera arazo ezberdinak aurkeztu zitzaizkielarik.</p>	<p>Naturalista eta linguistikoa</p>	
<p><b>“Erleen rap” abestiarekin dantza eta jolasa talde handian:</b> Sarritan entzun, dantzatu eta jolastu ginen <i>erleen rap</i> abestiarekin. Lehenengo aldian kantako erritmoari jarraituz dantza egin genuen, eta, estribilloa heltzean harrapaketa jolasean aritu ginen. Beranduago kantako bideoari erreparatu genion, eta, bertan eginiko dantza-pausoak errepikatzen hasi ginen, estribilloari dagokionez, liztorrak eta erleak aldeztu aurretik izendatzen genituen, harrapaketa jolasa egiteko.</p>	<p>Musikala eta kinestesikoa</p>	




<p><b>“Erleen rap” kantako letrari so egin:</b> Asanbladan ginela, landutako kantaren letrari arreta jarri genion, bertan, erle moten inguruko eginkizunak aipatzen zirelarik.</p>	<p>Linguistikoa eta naturalista</p>	
<p><b>Kartulinaz egindako erleak osatu:</b> Ikasle batek kartulinazko erlea egiteko eskulana etxetik ekarri zuen. Honela, ikasle bakoitzak kono forman moldatutako kartulina eta honi oinarri moduan kartulinazko borobila itsatsia zuen. Eskulana osatzeko erlearen marrak margotu eta begiak itsatsi genizkien.</p>	<p>Kinestesikoa</p>	
<p><b>Buztinarekin erleen inguruko artelana egin:</b> Buztin zati bat eta hura biguntzeko ura erabiliz, erleak, loreak, erlauntzak... modelatu genituen, bakoitzak egin nahi zuena libreki aukeratuz.</p>	<p>Espaziala eta kinestesikoa</p>	
<p><b>Erleak eta liztorren arteko ezberdintasunak identifikatu:</b> Talde handian, erle eta liztor baten argazkiak alderatu genituen elkarrizketa-eztabaida baten bidez. Lehenik, zein zen liztorra eta zein erlea komentatu genuen, jarraian, elkarri konparatu genituen, gorputz atal kopuruak, koloreak eta abar. Modu honetan, zenbait ezaugarrietan berdintsuak ziren, baina beste zenbaitetan, aldiz, ezberdinak. Honela, ezberdintasunak banan-banan aipatu genituen animalia biren artean bereizten ikasiz.</p>	<p>Naturalista eta logiko matematikoa</p>	


<p><b>Erle motak bereiztu:</b> Asanbladan ginelarik, talde handian erle moten inguruan hasi ginen hizketan, haurrei galdetuz zer zekiten erleen zereginei buruz, eta ea, guztiek lan berdinak egiten zituzten. Honela, hiru erle motak zeudela komentatu genuen: erregina erlauntzaren ama bezalako zela, ezta egiten dutenak langileak zirela, erlauntza babesten eta erregina ernaltzen zutenak erlamandoak zirela. Ondoren, hauen izenak idatzi genituen eta zagozkien irudiak margotu.</p>	<p>Linguistikoa eta naturalista</p>	
<p><b>Erlezaina marraztu eta margotu gorputz ataletan arreta jarritz:</b> Lehenik, asanbladan ginelarik giza gorputzari erreparatu genion, gorputz atalak izendatuz. Ondoren, haur bakoitzak erlezain baten marrazkia egin eta margotu zuen, gorputzari arreta jarritz.</p>	<p>Espaziala eta kinestesikoa</p>	
<p><b>Mapi erlearen ipuina:</b> Mapi izeneko erlearen istorioa irakurri genuen talde handian, bertan, Mapi-k bizitutako istorioa ezagutu genuen, non, beste intsektu bati laguntzen zion.</p>	<p>Linguistikoa eta pertsona artekoa</p>	
<p><b>“Have you seen my shapes?” ipuina:</b> Ipuin honetan, erle batek bere lagunei galdetuz forma ezberdinak bilatzen eta azkenik topatzen zituen, hala nola, borobila, triangelua eta karratua.</p>	<p>Linguistikoa eta logiko-matematikoa</p>	



<p><b>Azalpena LH-ko lagunei:</b> 1., 2. eta 3. mailako ikaskideak gonbidatu genituen gelara denbora tarte ezberdinetan erleen inguruan ikasitakoa partekatzeko. Modu honetan, erle txokoan ginelarik, erleen inguruan ikasitako hainbat ezaugarri azaldu genien: erle motak, erle mota bakoitzaren ezaugarriak eta zereginak, erlea eta liztorraren arteko ezberdintasunak, erlearen gorputz atalak, non bizi diren (erlauntza bertan genuen), erle langileek nola egiten duten ezti, nola komunikatzen diren bere artean, erlezainak zer egiten duen, ketzeko aparailua eta erlezain jantzia nola eta zertarako erabiltzen diren, ezti kolorea zergatik aldatzen den... Amaitzeko, ezti ezberdinak eta polena dastatu genituen, eta ikaskideak gure erlauntzera hurbildu ziren gertutik behatzeko eta entzuteko gure erle langileak lanean.</p>	<p>Naturalista eta linguistikoa</p>	
<p><b>Zer falta zaio erleari? Segida osatu:</b> Erlea osatzeko fitxa modukoa egin genuen, bertan, erle bat xehetasun osoz marraztuta agertzen zen, eta beste zeinbaitek atalak faltan zituzten. Honela, erleek faltan zituzten ezaugarriak osatu behar ziren, eta ondoren, erle guztiak margotu genituen.</p>	<p>Espaziala, kinestesikoa eta naturalista</p>	
<p><b>Asmakizuna:</b> Lehenik, asanbladan ginelarik asmakizuna irakurri genuen, eta honela zion, <i>erregina baten menpe daramat bizi osoa, loreetatik lortzen dut edari gozo gozoa, zer ote da?</i> Behin asmakizunari erantzuna eman geniola talde handian, erlea zela, alegia; banaka, erantzuna idatzi genuen orri batean (bertan asmakizuna ere azaltzen zelarik) eta erle baten marrazkia ere egin genuen bertan.</p>	<p>Linguistikoa eta espaziala</p>	
<p><b>Maya erlearen pelikula:</b> Maya marrazki bizidunen filma ikusi genuen. Bertan, erlauntzaren bizitza, erleen eta liztorren arteko etsaitasuna, laguntasunaren garrantzia eta arazoak gainditzea bezalako gaiak lantzen ziren.</p>	<p>Naturalista eta pertsonen artekoa</p>	

<p><b>Tximeleta belarriak ipuina:</b> Norbere burua maitatzearen eta onartzearen gaia lantzen duen liburua irakurri genuen.</p>	<p>Pertsona barrukoa eta linguistikoa</p>	
<p><b>Zer maite dut nire buruaz?:</b> Asanbladan ginelarik, tximeleta belarriak ipuina irakurri ondoren, bakoitzak bere buruaz zer zuen gustuko adierazi genuen.</p>	<p>Pertsona barrukoa</p>	
<p><b>Oihanetik badoaz animaliak abestiari erleen ibilkera gehitu:</b> "Ene kantak" abesti bildumako <i>oihanetik badoaz animaliak</i> kanta entzun eta dantzatu genuen. Honen ostean, erlearen ibilkera abestian falta zenez, erlearekin osatzea erabaki genuen, hortaz, ibilkera eta soinua gehitu genion kantari.</p>	<p>Kinestesikoa eta musikala</p>	
<p><b>Matematika jolas manipulatioa (kopurua eta zenbakia lotzekoa) egin:</b> Erlauntza, sei erle, 0tik 6ra doazen zenbakiak eta 1etik 6ra doazen dado moduko zenbakiak koloreztatu genituen, plastifikatu eta belkroa ipini genien. Honela, erlauntzan erle kopuru bat jarri, eta zenbakiarekin lotu behar zitzaion zegokion zenbakia itsatsiz (grafoa edo dado modukoa). Kontrako moduan ere egin liteke, zenbaki bat ipini eta zegokion erle kopurua itsatsi.</p>	<p>Logiko matematikoa, kinestesikoa eta pertsonen artekoa</p>	

<p><b>Kutxa magikoa:</b> Jolas honetan, kutxa magikoak ginen, lurrean makurturik ixten genituen gure atea. Kutxa ireki eta animali bat ginen, orduan, animalia horren ibilkera eta soinuak erreproduzitu behar genituen, erlea barne.</p>	<p>Kinestesikoa eta naturalista</p>	
<p><b>Erleen liburuxka:</b> Landutako gaiaren inguruko hitz gakoak idatzi genituen eta bakoitzari zegokion irudia ere koloreztatu genuen.</p>	<p>Linguistikoa eta naturalista</p>	
